

SAIZARREK TXOTX EGIN DU!

Egun handia Urtarrilaren 11n Usurbilgo Saizar sagardotegiak txotx denboraldi berria zabaldu zuen Miguel Indurain txirrindulari ohia ohorezko gonbidatuarekin



Amaia Arriaran

“**H**au da Usurbilgo Saizar sagardo berria!”. Hitz horiekin eman zion hasiera Miguel Indurainek txotx denboraldiari pasa den larunbatean. 450 lagun inguru elkartu ziren Saizar Sagardotegian eta giroa apartekoa izan zen.

Julian Iantzi aurkezleak gidatu zuen ekitaldia. Txotx egin ostean, Mikel Erentxunek eta Korrontzi taldeak festa giroa jarri zuten musika eta dantzarekin. Ondoren, gaueko une hunkigarriena heldu zen: Saizarrek oroigarri bat eman zion Induraini ohorezko gonbidatu gisa. Txirrindulariak hitz batzuk bota ostean, jendeak estimu handia erakutsi zion txalo zaparrada handi batekin. Jarraian Andoni Egaña bertsolariaren txanda izan zen eta 450 lagunak isilik eta adi-adi izan zituen. Txomin Perurenak ere

bertso batzuk bota zituen eta, amaitzeko, Mariano Mariano umoristak giroa alaitu zuen txiste batzurekin.

Aurpegi ezagunak

Horiez gain, pertsona ospetsu ugari joan ziren. Realeko jokalaririk ohiak adibidez: Imanol Agirretxe, López Ufarte, Luis Arconada edota Loren Juarros. Baita beste kirolari batzuk ere: Juan Martínez de Irujo pilotaria, Haimar Zubeldia eta Marino Lejarreta txirrindulariak, Gorka Aranberri arraunlaria, Ander Vilariño pilotua, Fernando Romay saskibaloia jokalaririk ohiak, Inaxio Perurena harri-jasotzailea...

Telebistako aurpegi ezagunak ere bertan ziren: Ander González eta Gabriela Uriarte (*A bocados*), Joseba Arguiñano, Julen eta Antton Telleria anaiak (*Gure kasa*), Óscar Terol, Laura Chamorro, etab. ■

1. **Julian Iantzi**, Napoleon Saizar eta **Miguel Indurain** txotx egiten denboraldiko lehen sagardoa-ekin. ARGAZKIAK: JAVI COLMENERO
2. **Juan Martínez de Irujo** pilotaria Korrontzikoko dantzariei begira.
3. **Mikel Erentxun** abeslaria eta, atzean, Fernando Romay.
4. **Sergio Pazos** umorista eta **Óscar Terol** sagardoa dastatzen.
5. **Loren Juarros**, Realeko kirol zuzendari ohia.

